


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 4a / 707. zenbakia



**ESKOLA
ANTZERKIA**

IKASLEAK ANTZERKIRA GERTURATZEKO JARDUNALDIAK

ORAIN ETA HEMEN: **ALKATEAREKIN BERBETAN/6-7** • **KIROLA: MONDRA, PRESIDENTE BILA/9**

AZALA: ALEX AZKARATE

GREMIOEN GIDA/20

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 4**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ZAPATUA, 5**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- DOMEKA, 6**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 7**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- MARTITZENA, 8**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 9**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUENA, 10**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 11**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00,
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzaila. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRIAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 (elebiduna)	
19:00 (elebiduna)	San Isidro eliza
Uribarri parrokia	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza
Domeka 11:30 (euskaraz)	Domeka 12:30 (elebiduna)
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

KORRIKA LAGUNTZAILE
Bihar, zapatua, Erdu-AEK-k mahaia jarriko du Portaloian, Korrika laguntzaile egiteko eta kamisetak saltzeko. 11:00etatik 14:00etara egongo dira.

UDALAREN BANDOA
Udalak herritarrei eskatu die espaloietan eta estoldazuloetan ura ez botatzeko, temperatura baxuen ondorioz ura izoztu eta arrisku egoerak sor daitezkeelako.

POSTA BIDEZKO BOTOA
EAJk posta bidez botoa emateko aukera ematen du. Interesatuak batzokira joan beharko dute apirilaren 5a aurretik. Astelehenetik eguenera bitartean egingo dute, 17:00etatik 20:00etara.

TXATXILIPURDI ETA EKIN
Txatxilipurdi eta Ekin Emakumeak Elkarteak batzar orokorrak egingo dituzte datozten egunetan, AEDren egoitzan, 18:30ean. Txatxilipurdik gaur, egubakoitza, egingo du; eta Ekin Emakumeak Elkarteak, hilaren 17an.

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Datorren egubakoitzean, hilaren 11n, Korrikaren aldeko kontzertua egingo dute gaztetxean. Madrilgo Coilbox eta Arrasateko Anger taldeek joko dute.

AEDren AGENDA

AED-K BATZAR OROKORRA EGINGO DU HILAREN 10EAN
Eguenean, hilaren 10ean, AEDk batzar orokorra egingo du. Elkartearen egoitzan egingo dute, 18:30ean.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Eroskik Roneoren lantegia erosi zuen

Eroski kooperatibak Maxi Eroskiren ondoan zegoen Roneoren lantegi zaharra erosi zuen. Helburua zen orduko supermerkatua handitzea. Lantegiak 5.580 metro koadro zituen, eta Arrasateko arkitekto eta ingeniari Ricardo Olaranek eraiki zuen, 1964. urtean.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lirainddu"



lirain bihurtu.

—Len potolua zan baiña ziero liraindduta dago.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Korrika 14ren prestaketa lanak eta egunez eguneko jarraipena, Arrasate Irratian

Badator Korrika 14! Martxoaren 10ean abiatuko da Orreatik, eta, Euskal Herria zeharkatu ondoren, Bilbora iritsiko da hilaren 20an. Gure ibarrera hilaren 16an helduko da. Astean, Igor Elorduik, aurtengo Korrikako prentsa-bulegoko kidea, aurtengo edizioaren ezaugarriak eta azken prestaketa lanak azaldu dizkigu. Asteburuko hitzorduan izango duzue berriro entzuteko bidea. Elkarrizketa hori ez da izango, baina, aurrerantzean Korrikari eskainiko diogun tar-

te bakarra. Izan ere, egunez eguneko jarraipena egingo diogu, eta Korrikako furgonetarekin konexioak egingo ditugu.

ASTEKO GAINBEGIRATUAN

Leintz Gatzagako Gatz Museora jo dugu gatzaren erabilpenaren gainean zerbait gehiago ikasteko asmoarekin. Museoko arduradun Aitziber Gorosabelek erraz ulertzeko azalpenak eman dizkigu. Gorosabelek esandakoak zapatuan eta domekan ere emango ditugu.

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 1 **-8 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 26 **10 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
7,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	8 °C	-1 °C	- l/m²
Eguena, 24	7 °C	-1 °C	- l/m²
Egubakoitza, 25	9 °C	-2 °C	- l/m²
Zapatua, 26	10 °C	-2 °C	4,2 l/m²
Domeka, 27	4 °C	-3 °C	3,3 l/m²
Astelehena, 28	1 °C	-2 °C	- l/m²
Martitzena, 1	7 °C	-8 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratua:** Igor Elorduik, Korrika 14ko prentsa-bulegoko kidea; Aitziber Gorosabelek, Gatz Museoko arduraduna; Aitor Arregi, zinemagilea Oscar sariaren gainean...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratua.**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Zozketak, etab...

11:05 **Musika.**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:20 **Zorion agurren tarte.**
Zoriontzeko eta zozketetan esku hartzeko
943 71 17 31.

12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Badauketzu Laubideko parkiñe ibiltteko ohiturarik? Garestixe dala uste dozu?



OSKAR ANDUAGA
Langillie

Ez dot sekula ibilli. Zigorrolatik erdialdera etorteko ez dot automobile hartzen. Gureu dot oiñez etorri. Preziue merkie dauko, baiñe sartzeko eta urteteko problemak emuten ei dau.



MAIDER ZUBILLAGA
Langillie

Ez daukou parkiñe ibiltteko ohiturarik. Bueltaka eta bueltaka ibiltten gare, baiñe ez gare parkiñez sekule akordetan. Ohitture kontue dala uste dot, berez prezio merkie daukolako.



ARANTZA TENA
Langillie

Ez daukou parkiñe ibiltteko ohiturarik. Senarrak garajie dauko, eta han sartzten dau automobile. Jentiek kalien aparketan dau, baiñe ez diruegaittik, ohituragaittik egitten dau.



ANGEL VALDES
Langillie

Zigorrolakue naz, eta erdialdera gutxitan jueten naz. Baiña juen ezkerro, oiñez jueten naz. Neure auzokuek automobilez jueten die beti, eta ez daue sekule parkiñe ibiltten.



AITOR ZUGASTI
Langillie

Ez dauket parkiñe ibiltteko ohiturarik. Neuk motorra ibiltten dot, eta beti kalien aparketan dot. Emaztie be kalien, etxe inguruen, aparketan dau, biher dauenien eskure eukitteko.



LOREA SAGASTA
Langillie

Batzutan ibiltten dou parkiñe, baiñe oso gutxitan. Ohituragaittik dala uste dot. Parkiñez akordau be ez gare egitten, eta erdialdien buelta eta buelta egitten ibiltten gare.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KARTELA LEKU DESEGOKIAN Irakurle batek aditzera eman digu Bizkaia etorbideetik Maitena kale ingurura (Malvinak) igotzeko eskaileretan kartel bat leku desegokian ipini dutela. Kartela Bizkaia etorbidean jarri gura dituzten garajeak iragartzeko da, eta irakurleak ondo deritzo horiek egiteari, baina haserre dago, kartela jartzeko han zeuden zuhaitzak eta landareak kendu egin dituztelako.

ETABARRUAN...

KIROLA / 9

Mari Jose Gilek, urrea

Arrasateko atleta beteranoak urrezko bi domina irabazi ditu Espainiako Txapelketan.

GAZTEAK / 12

Jukebox musika taldea

Jukebox musika taldeak diskoa kaleratu du GP diskoetxearen laguntzarekin. Salgai daukate.

ZAHARRAK / 14

Musakolako elkarte

Udalak eta Gotzaindegiak hitzarmena egin dute erretiratuek elkarte erabil dezaten.

ASTEKODATUA

1.000

ETXEBIZITZATIK GORA EGIN GURA DITUZTE HERRIAN

Arrasateko alkate Inazio Lakuntzak ARRASATE PRESSi aditzera eman dionez, 1.000 etxebizitzatik gora egin gura dituzte Arrasaten hurrengo bi edo hiru urteetan.

BESTEKEESANA

“Euskaltzaindiak ez du Mondragoe izena baztertu. Inork baztertu bazuen, lege eskubidez, Debagoieneko Udaltzatza izan da, zeren eta herri baten izena aldatzea erakunde horri baitagokio; ofizialtasun birrespena Batzar Nagusiei, foru arau baten ahalez eta erakunde akademikoari, ‘diktaminatzailea’, hots, irizpena ematea. (...) Egia da abertzale berbizkundearen eraginez, Mondragón deitu herriaren euskal bertsiozat Arrasate erabili dela. Horregatik Euskaltzaindiak onarturiko Euskal Herriko Udalen Izendegian, Arrasate ere jarri zuen euskal forma bezala, Mondragoeren alboan; baina Mondragoe jartzeko eskubidea duela uste du Batzorde honek, bai dokumentuetan, literaturan eta herri usadioan agertzen den bezala”

JOSE LUIS LIZUNDIA
‘BERRIA’/05-02-26

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Txakurraren bibolina

Mendi elurtuak. Ostetik eguzkiak kuku egin dit, egunsentia, egin bedi argia. Beethovenen sinfonia. Umetxo ilehoria takarraran herriko plazan, usoei ogi apurak jaurti guran aingerutxo, uso-saldoak ihes egin dio baina, hegoak astinduz, zerurantz, baietz heldu izarretaraino. Bi aittite petanka jokoan parkean, bietako batek agur egin dit eskuz, irribarretsu, gorantziak aittari, gero, boloa jaurti eta baita asmatu ere bete-bete. Jo du mailuak burdina gorra, hango sua eta txinparta, behargin metalurgiakoak bekokiko izerdia sikatu eta diosala egin dit, aupa laguna, lanetik ateratakoan edango diagu baso erdia. Autopista eskalextrikoak ikusi ditut, baita trenak ere abiada bizian, pastore zaharrak bordako ataritik agur egin die tren bidaiariei makila altxata, baita artzain-txakurrak ere alboan, lau hankatxoak batera

jasota. Ikasgelan ume koxkorak lan eta lan, gaur denek jakingo dute lezioa, eta andereñoaren irrinoa, eskuadra eta kartaboia esku banatan. Doinu modernoa orain. Guggenheim parean hiru neskata xarmangarri, Artearen Historiako apunteak erreparatzen, gero haletako bat, polittena, bizikleta hartu eta badoa unibertsitatera, ipurmasail oparoak ritmikoki mugituz. Eta ozeanoa, olatu gaziak itsaslabararen kontra tupust, hango ziprztina, tinbalak entzun dira, bibolinak.

Hara hautagaia, esport jantzita baina elegante, kale gorrian familiaren urrezko bitxiak bere esku beldurrik gabe uzteko moduko gizona, errekadua egitera noan bitartean eutsi mesedez. Kontu kontari aritu zait, paternal, eskuak abadeen pare airean mugituz. Gero umetxo ilehoria hartu eta pa ematen dio matrailan. Partiduaren sintoniaz amaitu da spota. Demokratik.

“Olatu gaziak itsaslabararen kontra tupust, hango ziprztina, tinbalak entzun dira, bibolinak”

Arrasate

Otalaria Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
Ane Bereizibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Elco Brandt enpresa erostea onartu dute

Joan den astean egin zuten Fagorko bazkideek erabaki hori hartzeko bozketa, eta bazkideen %83k Brandt enpresa erosteko baimena eman zuten.

Kontseilu sozialak, baina, hainbat baldintza jarri zituen. Hasteko, operazioak ezin izango du lanpostuen galerarik ekarri. Bigarrenik, bazkideen poltsikoan ez eragiteko, operazioak dirulaguntzarik beharko balu Fagor Taldeak hartuko luke bere gain. Hirugarrenik, operazioaren kudeaketaren berri izango du kontseilu sozialak, eta azkenik, erosketan operazioan dabilzan exekutiboek operazioak dirauen bitartean kargua ez uzteko konpromisoa hartuko dute.

Emakumeenganako indarkeriaren kontra

Emakumeen kontrako indarkeria kasu larriren bat gertatzen den bakoitzean salaketa egingo dute Arrasaten. Hala erabaki zuten emakumeenganako indarkeriaren kontrako taldeak joan den asteko batzarrean. Besteak beste, indarkeria dela eta Euskal Herrian emakume bat hiltzen duten bakoitzean, kale bilkurak egingo dituzte Herriko Plazan. Bestalde, egoeraren gaineko balorazio gazi-gozoa egin zuten taldeak. Gazia, emakumeenganako indarkeria larregi dagoelako, eta, gainera, oso kasu larriak izaten direlako. Eta gozoa, Arrasateko taldeak aurrera egin duelako, eta, gainera, zenbait gizonezkoek ere bat egin dutelako taldearekin.

MUko 17 ikasleri errekonozimendua

Produktzio Zuzendaritzaren gaineko masterraren diplomak banatu zituzten joan den zapatuan Otolara jauregian. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, unibertsitateko errektore Inaxio Oliveri eta Irizar kooperatibako kudeatzaile Koldo Saratxaga. Esan beharra dago master hori egin duten ikasle guztiak zuzendaritza lanpostuetan dabilzala lanean.



'Epaiketa fartsak' salatzeke, protestan

Elkarri kateatu eta protesta ekitaldia egin zuten 40 gaztek baino gehiagok joan den astean. Hain zuzen, Auzitegi Nazionalan egiten dituzten epaiketa fartsak salatzea zen helburua, kasu honetan, Jarrai-Haika-Segi auzia dela-eta. Eroski hipermerkatuan izan ziren lehenengo; handik Herriko Plazara joan ziren, eta gero, herriari buelta eman zioten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Ametsak, egi bihurtu

Ez ditut larregi maite printze eta printzesen ipuinak, baina oso bitxia iruditu zait Nacho Vigalondo zinemagileari gertatu zaiona. Bilbo aldean bizi den gazte horrek *7:35 de la mañana* izeneko film laburra egin zuen, eta banan-banan sari ugari eman diote. Horien artean, Oscarretarako izendatu zuten. Azkenean, ez du

Oscarra jaso, baina pozik egon daiteke bizi izan duen amets gozoarekin. Are gehiago, horrek ospe handia eman dio eta ziur hemendik aurrera lan egiteko erraztasunak izango dituela.

Beste askok, berriz, film labur horren izenburuarekin bat, goizean goiz jaiki, lan egin eta hortik kanpo hainbat elkarteren alde lan egiten dute musu-truk. Hala

egin du urte askotan Mondrako presidente Jose Luis Ezkurak, *Pitxi*-k ere gauza bera egin zuen eskubaloian, eta beste adibide asko daude.

Besteak beste, Ezkurak kargua utzi du, eta beste talde batzuetan zuzendaritza aldatu dute. Badira lagun batzuk herriko kirol taldeen alde lan handia egin dutela, eta horiek ere ordezkok behar dituzte. Askoren ametsak egia bihurtu daitezkeen gazteek hartu beharko dituzte ardurazko karguak.

ASTEKOIRUDIA



LAU HILABETEAN ITXITA IZAN ETA GERO, BERRIRO ZABALDU DUTE MONTEIRON PARKEA

Belgikatik ekarritako zuhaitzak landatu ostean, Udalak erabaki du Monterron parkea berriro zabaltzea. Hain zuzen ere, gaur, egubakoitza zabaldu dute, behin-behinerako. Izan ere, oraindik parkean lanak egin behar dituzte. Zuhaitzak gaixo zeudela ikusi zutenean, erabaki zuten zuhaitzok botatzeaz gai-

nera parkearen erabilera zehaztu egin beharko zutela; oro har, berriro diseinatuko du Udalak Monterron parkea; eta zela erabili ere zehaztuko du. Baina hori aurrerago izango da. Bien bitartean, zabaltzeko izango da Monterron, parkean lasai ibiltzeko eta, jakina, inolako arrisku barik. /U.M.



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta billegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiak

Lore


- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



ELKARTASUN GEHIAGO ARRASATETIK NIKARAGUARA

Eskualdeko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetako arduradun Iñaki Agiriano Nikaraguan izan da ia hilabetez. Baina ez oporretan. Bere poltsikotik dirua ipini, ahal izan duen medikamentu guztiak hartu, eta Nikaraguako Granadan orain dela hiru urte ipini zuten anbulatorioaren egoeraren berri jakitera joan da. Anbulatorio horri esker, han inguruko bizilagunek hamar kilometro gutxiago egin behar dituzte (askotan oinez eta modu txarrean) medikuarengana joateko. Oraingoan, astean bi egunean zabaltzen dute; baina asma da astean bost egunean zabaltzea. Hori lortzeko, hango ministroekin berbetan ibili da Agiriano.



BISTAN DA OSPAKIZUN BATEAN ERE BADAGOELA ALDARRIKAPENENDAKO LEKUA, IKUSI BESTELA

Argazkiko koadrila handi horrek erakutsi du ospakizun egunetan ere badagoela aldarrikapenendako lekua. Oraingo asteburuan ezkonduko dira Agustin Zugasti *Txusti* eta Larraitz Herrero (*Txusti*-ren Eskoriatzako koadrilakoek egin zioten ezkon aurreko jaiak ere eman zuen txutxu-mutxu baterako...). Eta Agustinen eta

Larraitzen lagunek joan den asteburuan ezkon aurreko jaiak egin zuten. Kasualitate kontua, egun hartan bertan manifestazio nazionala egin zuten Bilbon 18/98+ sumarioaren kontra egiteko. Eta, Bilbora joan ez baziren ere, lagun koadrila horrek bat egin zuen ekimenarekin. Koadrila guztiaren partetik, zorionak, bikote!!!



FRANTZIAKO LYCEE BELLEUVE IKASTETXEKO IKASLEAK ARRASATEN

Astebete egin dute ikastetxe horretako hainbat ikaslek Arrasateko Institutukoekin batera; izan ere, bi ikastetxe horien artean elkartrukeak egiteko programak dituzte abian. Urrian, hainbat gazte arrasatear izan ziren Frantzia, eta orain, eurei egokitu zaie gurera

etortzea. Institututik esan digutenez, Arrasateko inguruak eta Euskal Herriko hainbat hiriburu bisitatu dituzte. Arduradunen esanetan, horrelako elkartrukeak oso aproposak izaten dira atzerriko hizkuntza praktikatu eta beste herrietako ohiturak ezagutu eta horietara moldatzeko.



NIK IKASLE IZAN GURA DUT BERRIRO, EDO BESTELA IRAKASLE...

Arrasate BH Institutuko ikasleek Aratuste ederrak izan dituzte, eskolan jai izateaz gainera, sei egun egin dituzte-eta Pirinioetan eskiatzen. Azken urteotan urtero egin dute ekimen hori; baina hainbat lekutan ibili dira. Hain zuzen ere, aurtan, Arrasateko eskiatzaile

gazteak Lleidako Port Aine eski estazioan izan ziren, eta, argazkian ikus daitekeen moduan, gura beste elur izateaz gain eguraldia ere lagun izan zuten. Ikasiko dute ikasle horiek eskiatzera euren poltsikotik joaten direnean zein kirol garestia den. Aprobetxatu orain!

ELKARRIZKETA

INAZIO LAKUNTZA/ALKATEA

“Gure asmoa da zerbitzu egokiak eskaintzea, jendea hemen gera dadin bizi izaten”

UBANE MADERA

Udalaren jardunari begirada emateko asmoarekin, alkatearengana jo dugu. Etxebizitzen, lanen, kulturaren... gainean berba egin digu. Baita enpresaburu izatetik politikari izatera arte egin duen ibilbidearen gainean are.

Zelakoa izan da ibilbidea? Zein balorazio egingo zenuke orain arteko jardunaren gainean?

Hasieran nuen beldurra ea gauza izango nintzen politikan jarduteko, ni sekula ez naiz ibili-eta politikagintzan. Askotan herritarren beharrak asetzeko beharrezkoa izaten da alderdi politiko guztiek batera jardutea, baina interes politikoak azaltzen dira eta guztia zailtzen dute. Dena dela, nik uste dut gure arteko harremanak eta giroa oso positiboak direla. Hori bai, egia da, baita ere, gauza batzuk lortzea asko kostatzen dela, administrazioaren egiturarengatik; prozesu batzuk oso luzeak dira. Bestela, jendearekin harremanak izatea antzerakoa da enpresetan edo hemen.


Egindako ekimenen artean, pare bat-edo nabarmen-tzekotan...

Lehenengo nabarmenduko nuke Udalaren barne-egitura aldatu egin dugula. Azterketa egin genuen ikusteko zein zen egitura egokiena. Helburua da kohe-sioa lortzea, barrura zein kanpora begira. Adibide bat ipintzearen, herritarrek txalupa bakarra ikustea eta ez txalupa mordoia. Hau da, funtzionamendu aldetik lanak batzea eta kohe-sioa ematea; Tokiko Gobernu Batzarretik hasi eta gero hedatzea.

Bigarren lekuan, Egitamu Orokorra aipatuko nuke. Egitamua-ri egindako lehenengo aldaketa onartu egin dugu behin-behine-rako, eta Diputazioaren eskuetan dago. Horrek esan nahi du hemendik gutxira aukera handiagoak izango ditugula herrian lanak egiteko, batez ere urbanizazio alde-tik eta etxebizitza aldetik.

Hain zuzen ere, orain dela gutxi aipatu zenuen etxebizitza-egitea zela zure asmoeta-ko bat. Uste duzu horrela gazte gutxiago joango dela Arrasate-tik kanpora bizi izatera?

Orain azterketa egiten gabiltza neurtzeko erroldaren murrizketa hori zergatik gertatzen den. Baita ere nahi dugu jakin Arrasaten dagoen biztanleria mugikor kopu-rua. Erroldaren bajei dagokien-ze, garbi ikusten da gehienak izaten direla 20-36 urte bitarteko gazte-ak, eta arazoa etxebizitzak direla. Arrasate-tik joaten diren gazte



U.M.

“Erroldaren bajei dagokien-ze, ikusten da gehienak izaten direla 20-36 urte bitarteko gazteak”

gehienak bailaran geratzen dira. Gertatzen dena da etxebizitza gutxi dagoela Arrasaten, eta gainera garestiak. Baina hemendik gutxira 1.000 etxebizitzatik gora egin behar dituzte herrian. Horietatik ia-ia %50 babes ofizialekoak izango dira, bai alokatzeko, baita eroste-ko ere. Zerrajerako etxebizitzak egiteko baimena badute, esaterako. Gelmari dagokionez, lantegi berria maiatzean abian izango da eta maiatzetik aurrera izango dute baimena Gelman etxebizitzak eraikitzen hasteko. Hor ia-ia 500 etxebizitza egingo dituzte eta horietatik %30 babes ofizialekoak izango dira. Horrez gainera, Polmetasan beste 220 etxebizitza eraiki behar dituzte, %30 babes ofizialekoak, eta Uribarrin beste 150 etxebizitza eraikiko dituzte, hor-

“Bi urtera-edo etxeen merkatua zabalagoa izango da, dirudunendako zein gazteendako”

tik ere %30 babes ofizialekoak. Horrenbestez, hemendik bi urtera-edo merkatua lehen baino zabalagoa izango da bai eroste-ko, baita alokatzeko ere. Eta ez bakarrik diru asko dutenendako; gazteendako ere izango dira aukerak.

Bestalde, aipagarria da, baita ere, kultura arloan egin dugun ahalegina. Batez ere, Amaia Udal Antzokiari eman diogun bultzada. Gaur egun erabiltzen da zinema-arendako, antzerkiarendako, batzar-ek egiteko... Ia-ia kolapsatuta dugu. Asteburu guztietan, egue-netik astelehenera arte izaten da zerbait. Hortaz, gabezia hori ere betetzen gabiltza apurka-apurka.

Kultura aipatu duzunez, herritarren kezketako bat da asteburuak geroago eta hutsa-go daudela. Denda txiki asko

“Zerbitzu aldetik gabeziak ditugu, ez bakarrik Arrasaten, bailara osoan baizik”

dabiltza ixten... Baduzue arlo hori landuta?

Aztertuta dugu zerbitzu alde-tik gabeziak ditugula. Ez bakarrik Arrasaten, bailara osoan baizik: aisialdi aldetik, kultura aldetik eta merkataritza aldetik. Jendeak ihes egiten du Arrasate-tik, Gasteizera, adibidez. Eta halako ohiturak aldatzea oso zaila da. Baina kultura eta aisialdi arloan, behintzat, garbi dugu edozein ekimen babestuko dugula. Merkataritza arloan ezin dugu orain egiten duguna baino gehiago egin. Iniziatiba beste non-baitetik etorri behar da; hortxe dago, esaterako, Ibai Arte. Hori bai, gu gertu gaude Ibai Artetarekin bat egiteko eta bion artean zerbait egiteko. Eta egin ere egin izan dugu: Erdi Aroko azoka antolatu genuen elkarrekin... Eta ez hori

bakarrik. Pentsatuta dugu Biteri aparkalekua egiten denean, haren gainean sortuko den gunean (par-ke modukoa, kiosko eta guzti) azo-ka txikia ipintzea. Gaur egun dago-en zulotik atera eta hara eramán. Estalkiren bat ipiniko dugu. Asmoa da giroa sortzea kalean. Ikusita zer dagoen Ordizian, Tolo-san... guk azoka txiki hori baka-rrik dugu. Eta jakin badakigu jen-dea saltzeko prest dagoela. Ea horrela lortzen dugun zelanbait merkataritza arloa berpiztea.

Herritarrek kezkatzen dituen beste gaitako bat da Eskualdeko Ospitalearen etor-kizuna. Zelan dago egoera?

Osasun Saila azterketa egiten dabil. Guk hemengo beharren berri emango diogu. Dena dela, irtenbide guztiak zabalik daude. Gerta daiteke gaur egungo lekuan egitea berria. Edo ospitale guztiz berria egitea beste leku batean. Edo mistoa izatea. Mistoak esan nahi du zati bat oraingo gunetik atera eta beste zati bat han uztea. Adibidez, atentzio primarioa han-dik ateratzea (ez oso urrun) eta geratzen den leku guztia ospitalea handitzeko erabiltzea. Osasun Sai-lekoek esan dute prest daudela edo-zein irtenbide aztertze-ko. Baina oraindik ez dakigu zein izango den irtenbidea. Dena dela, nire ustez, posible da irtenbide misto egokia lortzea.

Bestalde, jakina, han inguru-ko urbanizazioa goitik behera alda-tu beharko dugu. Esaterako, ospita-learen ondo-ondoan dauden lan-tegiak kendu egin beharko ditugu. Eta aparkalekuak ere behar ditu-gu. Horren harira, han egin behar dituzten etxebizitzendako apar-kalekuak egin behar dituzte, bi solairutan. Eta pentsatuta dago hirugarren solairu bat egitea, ospita-learendako.

Azpiegiturekin segituz, badator tranbia, autobidea, uni-bertsitatea badugu... Badirudi hori dela Arrasate laugarren hiriburua izateko bidea; eta gero zer? Zein da horren helburua?

Orokorrean hartuta ikusten da geroago eta gehiago populazio mugimendu orokorra dagoela bar-netik kostaldera doana. Hemen bizi dira, baina bigarren etxebizi-tza kostaldean dute; edo, gaur egun-go azpiegiturez baliatuz, esatera-ko, Arrasaten lan egin arren, Zarautzen bizi dira. Hala, gure asmoa da tendentzia horri muga ipintzea edo, behintzat, baretzea. Hemen lortzea leku bat ez baka-rrik lan egiteko, baita bizi izateko ere. Ni etorri nintzen orain dela 31 urte eta egundoko giroa zegoen hemen, baita bizi izateko ere. Erre-pideengatik-eta zaila zen henen-dik irteeta. Orain, berriz, dena

zabaldu da eta gure asmoa da zerbitzu egokiak eskaintzea, jendea hemen gera dadin bizi izaten. Adibidez, jende pilo joan da eta joaten da Gasteizera, eta argi dago Gasteizek duen erakargarritasuna dituen zerbitzuei esker dela, bestela... Kostaldea beste gauza bat da, harekin lehiatzea zailagoa da. Dena dela, ahaleginduko gara. Hala, gure asmoa da bailara osoan kohesio handiagoa lortzea, bailara oso-osorik lantzea. Adibide bat: orain Oñatin golf zelaia egin nahi dute. Guk Mankomunitate moduan bat egin dugu proiektu horrekin eta bultzada ematen ahalginduko gara.

Zuri —eta zure gobernari— egindako kritiken artean gehien entzun ditugunak izan dira Santamas jaiarekin lotutakoak eta Batasunarekin lotutakoak. Zer esango zenuke?

Santamasei dagokionez: guretako jai ofiziala da Santamas Eguna; ez da Maritxu Kajoi moduan, hura ez da ofiziala, baina bai Santamas Eguna. Eta jai ofizialetan, guretako, behintzat, ezin da Udala baztertu. Talde kulturalak prest badaude ekimenen bat egiteko, geu ere prest gaude edozein talderekin lan egiteko. Santamasen kasuan, jai ofiziala denez, uste dut Udalak ez bakarrik dirua ipintzeko, baizik eta parte hartzeko eskubide osoa duela, gauza batzuk nola izan behar diren esateko, beste talde batzuek duten moduan. Beraz, lan egin dezagun guztiok batera. Nire ustez, taldeen jarrera izan da oso mugiezina. Hala eta guztiz ere, gurekin lan egin nahi duenarendako beti ditugu ateak zabalik. Bestalde, Santamas Komisiñokoak zeintzuk diren ez dut oso argi; talde kulturalak bai, baina Komisiñue? Zergatik behar dugu bitartekorik Udalaren eta talde kulturalen artean?

Batasunari dagokionez: harekin ditugun harremanak oso urriak izan dira, presoekin lotutakoak. Auzi zehatz batzuekin lotutakoak, hain zuzen ere: Letona auzia, Jon Agirrerena... Eta bitarteko moduan eraman ditugu zenbait mozio osoko bilkuretara. Horatik aparte, ez da beste ezer izan. Ez dira etorri ezertara. Oso arra-

“Ospitaleari dagokionez, oraindik ez dakigu zein izango den irtenbidea”

“Garaian egiten dabiltzana garrantzitsua izango da bailara osorako”

roa izan da, baina ez dira etorri. Eta gu hemen gaude edozein pertsona zein erakunderendako, ateak zabalik.

Bukatzeko, herria asko aldatu da azken hamar urteotan; zela ikusten duzu hamar urte barru?

Halako iragarpenak egitea zaila izaten da; hala eta guztiz ere, gauza bat edo bi garbi ikusten ditut. Batetik, Zerrajera guneko etxebizitza guztiak eta egindakoan, desplazamendu moduko bat izango da herritarren artean, harantz zabalduko da erdigunea-edo.

Bestalde, nire ustez, oso garrantzitsua da ikustea zer gertatuko den Garaiarekin. Garaia da enpresak abiarazteko beste modu bat, lan egiteko beste modu bat. Eta oso inportantea izango da ikustea zer gertatuko den berrikuntza horrekin. Gaur egungo globalizazioarekin, produktuen kostuari begiratuta, ezin diegu aurre egin ekialdeko herrialdeei, adibidez. Horrenbestez, hemen beste balio batzuk landu beharko ditugu. Eta Garaian egiten dabiltzana bailara osorako izango da garrantzitsua. Ez nuke esango orain dela 50 urte hemen sortu zen kooperatiben, eskolen... mugimenduen parekoa izango denik, baina... Zalantza daukat ea zer gertatuko den, lan egiteko beste modu bat izango delako.



Arrasateko euskalgintza

“Euskara gutxiago maitatu eta gehiago erabili behar da”

EUSKALGINTZA

Eneko Barberena arrasatearra euskararekin duen esperientzia kontatuko dugu. Esan digu, adibidez, Musakolan jaio zela orain dela 20 urte: “Nahiko auzo makarra zen” eta amaren familiarekin beti berba egin izan duela euskaraz.

“Aita ere euskalduna da, Nafarroakoa, baina euskaldun-berria. Txikitan saiatzen zen nirekin euskaraz egiten, baina ez nion ulertzen. Bolada bat izan genuen gazteleraz hitz egiten eta orain berriz hasi gara euskaraz. Nafarroako familiarekin gazteleraz egiten dut. Lehengusu-lehengusinak ikastolara joan dira eta euskaraz egiten dut haiekin.

Koadrilan betidanik egin dugu euskaraz. Haurtzaroan Musakolan egoten nintzen, eta euskaraz egiteko zortea izan dut. Esan behar da, hala ere, salbuespen bitxia ginela inguruan.

6. mailara arte Musakolan ikasi nuen, San Frantzisko Xabier ikastolan. Beti Dereduan. Gero Gazteluondon, Ferixalekuan eta azkenik, batxilergoa San Viatorren egin nuen. Orain Zuzenbidea ari naiz ikasten EHU, Ibaetako Kanpusean. Salbuespena gara; izan ere, aukera daukat karrera hasieratik amaieraraino euskaraz ikasteko.

Aisialdian ere euskaraz jardun dut. AEDren bertso eskolan ibili nintzen; 13 urtetik eskubalo taldean nago, Musakolako Gazte Txokoa egindako urteak, gartzetxean... denetan, nahiz eta



“Sutan jartzen naiz koadrila euskaldunek gazteleraz egiten dutenean”

“Nahiz eta jende erdalduna eta euskalduna egon, beti izan dut euskara mihian”

jende erdalduna eta euskalduna egon, beti izan dut euskara mihian. Musika ere euskalduna entzuten dut batik bat. Irakurtzeko orduan txikitan maiz irakurtzen nuen gazteleraz, eta hori nabaritu egin dut. Liburu gogokoak izan ziren *Asterix eta Obelix*, *Mortadelo y Filemon*, *Daniel el travieso*... euskaraz, berriz, ipuin mitiko horiek: *Patxi errementaria*, *Bigantxaren ordai-*

na... Diot nabaritu dudala gaztelerazko irakurketa lexikoari eta dudak hiztegiari dagokionean. Espresioak, hitzak... sarritan gazteleraz etortzen zaizkit lehenago. Idatzi ere euskaraz idatzi dut orain arteko guztia, bai *Putz* aldizkarian, bai kolaboratu dudak komunikabideetan ere... Geroago eta zailagoa da nire burua irudikatzea beste hizkuntzaren batean idazten”.

LABUR

Ibilgailuen eta uraren zergak

Udalak jakinarazi digu, apirilaren 14ra arte, ur hornidura eta zabor bilketa tasa ordaintzeko borondatezko epea zabaldu duela. Era berean, maiatzaren 7ra arte izango da zabalik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea.

Bien kasuan, borondatezko epe hori bukatzen denean ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

Tranbiaren proiektua martxoaren 20ra arte izango da ikusgai Monterron jauregian

Udalak luzatu egin du tranbiaren ibilbidearen proiektua jendaurrean izateko epea. Kontua da otsailean bukatu zela epe hori, baina proiektua behar bezala ikusteko asti nahikoa ez dela egon-eta, erabaki dute martxoaren 20ra arte luzatzea. Orain arte moduan, Monterronen ikus daiteke proiektua.

Hain justu ere, proiektua jendaurrean ipintzen dutenean, alegazioak aurkeztu ahal izateko da, besteak beste. Eta Hirigintza Saitetik jakinarazi digute herriarrak badabiltzala alegazioak

aurkezten. Oraingoan, tranbiaren ibilbideak kaltetzen dituen zenbait partikularrek aurkeztu dituzte alegazioak. Horrekin batera, gaineratu digute Arrasateko Udala ere proiektua sakon aztertzen dabilela egunotan. Arrasaterengan eragin handia izango du tranbiak; horrenbestez ondo aztertu beharreko gaia dela esan digute. Era berean, Udalak egoki ikusten badu, hark ere egingo ditu alegazioak eta herritarren alegazioekin batera bidaliko dituzte, Eusko Jaurlaritzara.

Aldaketen garaia da

Asko aldatuko da Arrasate datozen urteotan. Batez ere, alkateak esandako moduan, 1.000 etxebizitzatik gora eraiki behar dituztelako. Horrekin lotuta, ospitale inguruan ere eraldaketa ikusiko dugu laster. Hori ere esan digu alkateak. Batetik, han etxebizitzak eraiki behar dituztela, Zerrajerakoak. Bestetik, Udalak inguru hura guztia berriro urbanizatzeko asmoa duela, itxura guztiz berritzeko.

Eraikitzen dabiltzan Biteri aparkaleku inguruan ere ikusiko ditugu aldaketak. Eraikin berriaz gainera, Udala pentsatzen dabilelako aparkalekuaren gaineko aldean sortuko den espazioa aisialdirako erabiltzea, azoka txikirako, akaso. Apurka-apurka, EAeko laugarren hiriburu bilakatu gura dute Arrasate, bereziki, arrasatearrendako bizitzeko leku egoki bat izateko. Kohesionatutako bailara gura dute. Bukatzeko, ekonomian ere ikusiko ditugu aldaketak: Garaiak eragindakoak. Lan egiteko beste modu bat, industria modu berri bat izango da.

Gorka Kintana: "Esango nuke Liga motz geratu behar zaigula"

XABIER URTZELAI

Kintanak ondo dioen moduan, Mugarrri Alkesakoei motz geratu behar zaie Liga Txapelketa. Bost norgehiagoka jarraian irabazita, Arrasateko taldekoak seigarren garaipenaren bila joango dira Iruñea aldera. Bolada onean ez dabilzan Antonio Erro y Eugi taldekoak egongo dira zain.

Eta horregatik dago baikor Mugarrri Alkesako jokalaririk Gorka Kintana: "Badakigu Iruñean irabaztea ez dela erraza izango, baina azkeneko norgehiagokak ikusita, eta kontrarioa nola dagoen jakinda, irabazteko moduko partidua izango dela uste dut".

Oraingo asteburuan Mugarrrikoek irabazi egiten badute, eta joan den asteburuko kontrario Padurak galdu egiten badu, Arrasateko taldeak hirugarren postura egingo du jauzi: "Pena da Liga Txapelketa amaitzeaz dagoela, dagoeneko ez daukagu eta lehenengo postuetan dauden bi taldeei harrapatzeko aukerarik".

GOIKOEN MAILA BEREAN

Aurrealdean dabilzan Ardoi eta Lan Mobel Iraurgi taldeek igotzen fasea jokatu dute: "Taldeen komentatu izan dugu ondo egongo litzatekeela euren kontra lagun arteko norgehiagokaren bat jokatzea. Gorputzaldi txarrean geundenean jokatu genuen euren kontra, baina esango nuke, orain, emaitza bestelakoa izango litzatekeela". Biharko norgehiagoka izango da Ligako azkena, baina



"Ondo egongo litzateke Ardoiren edo Iraurgiren kontra lagunartekoa jokatzea".

Arrasatekoendako ez da denboraldia amaituko, Kopa moduko txapelketa bat jokatu dute eta: "Ea txapelketa horretan lan polita egiten dugun, azkenaldian maila onean gabilta eta. Dena dela, hurrengo denboraldirako ahaleginu beharko gara emaitza onak lehenago eskuratzen, aurten beranduegi hasi gara eta".

AGR SAILKATU DA IGOERA FASERAKO

Joan den astean lortu zuen lehen territorial mailan dabilen Arrasateko taldeak igotzen fasea sail-

katzeko txartela, eta asteburuan Bidasoaren kontra jokatu dute Arandoren mutilek: "Liga amaitu eta berehala hasiko dugu igotzen fasea, eta dagoeneko federazioak antolatu du fase berri hori. Orain, erabaki behar duguna da geratzen zaizkigun bi norgehiagokak irabaztea komeni zaigun ala ez". Izan ere, alde handia egon daiteke igotzen fasea bigarren edo hirugarren sailkatzearen artean: "Bigarren sailkatzen bagara, hasiera-hasieratik izango ditugu kontrario gogorrak".

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

HLB 108 - Billy & The...	5-3
AT Celaya - Iriztu	5-3
Saukelu Scream - Goma2	8-1
Torpedo Musakola - Tomahawk	8-6

PARTIDUAK

MARTXOAK 5, ZAPATUA. EPAILEAK

10:00: Abokajarro - Saukelu.	Fuxion
11:00: Fuxion - Tomahawk.	Abokajarro
12:00: Lasagabaster - AT Celaya.	Tomahawk
13:00: La Kuadrilla - Billy &...	Lasagabaster
16:00: Iriztu - Torpedo Musakola.	Betrayer
17:00: Betrayer - Manhattan.	Iriztu tab.
18:00: HLB 108 - Dribling.	Manhattan.

MARTXOAK 6, DOMEKA. EPAILEAK

12:00: AC Surcos - Goma2.	Irati Tab.
13:00: Ekipo Aldeano - Irati Tab.	Goma2

Deskantsua: You Know!

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	18	11
2. Irati Taberna	17	11
3. AC Surcos	15	11
4. Betrayer	14	10
5. Saukelu Scream	14	10
6. Dribling	13	11
7. Lasagabaster	13	10
8. Iriztu Taberna	12	10
9. AT Celaya	12	10
10. Goma2	10	10
11. La Kuadrilla	10	11
12. Billy & The Cowboys	9	10
13. HLB 108	8	11
14. Fuxion	8	10
15. Torpedo Musakola	7	11
16. Abokajarro	7	10
17. Tomahawk	6	11
18. Manhattan Pippol	4	10
19. Ekipo Aldeano	3	10



KOPAKO FINALAURREKOAK GERTU

HLB 108 ETA TORPEDO MUSAKOLA KOPAKO EZUSTEAK

Joan den astean jokatu zituzten Kopako final-laurdenak, eta HLB 108 taldeak eta Torpedo Musakolak eman zuten ezustea finalaurrekorako sailkatuz. Ligan, sailkapenaren erditik behera daude bi talde horiek, baina indartsu ibili dira Kopan. Gainera, bi talde horietako bat finalean izango da, euren artean jokatu dute eta finalaurreko norgehiagoka. Beste norgehiagoka Saukelu Scream eta AT Celaya taldeek jokatu dute. Bi talde horiek Kopako azken txanpan egotea ez da sorpresa, biek hala biek dakite eta Zaldibarko txapelketa irabaztea zer den.

Datozen jardunaldietan, baina, Kopa alde batera utzi eta Zaldibarren Liga jardunaldiak jokatu dituzte. Hamahirugarren jardunaldia izango da oraingo asteburuko, abisuz beteta datorrena. Saukelu Scream, Goma2 eta Iriztu taldeetako jokalariek argi ibili beharko dute, antolatzaileak gain-gaiean izango dira eta. Zapatu goizeko bi norgehiagoka azpimarratuko ditugu: Lasagabasterrek eta AT Celayak, eta La Kuadrilla eta Billy & The Cowboys taldeek jokatu dutena.

FOTOKIROLA



Besaideko zuzendaritzan, beteranoek lekua egin diete gazteei

Eguaztenean egin zuten Besaideko zuzendaritza aukeratzeko batzarra. Horrez gainera, Udaltzen egin gura zituzten lanen gainean ere egin zuten berba, eta batzarrean izan ziren bazkide gehienak lan horien kontra azaldu baziren ere, elkarte moduan ez zuten posizionamendurik hartu. Jaime Epelde izango da Besaideko presidentea. Aitziber Galdos izango da idazkaria, Mikel Bergara presidente orde, Karmelo Bergaretxe diruzaina eta Jon Ugarte, Mikel Loiti, Aritz Arregi eta Maite Aperribai batzordekideak. Argazkian, lehengo eta oraingo zuzendaritzako kide batzuk /X.U.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Antonio Erro y Eugi - Mugarrri Alkesa
Lehen maila. Zapatua. 17:45. Iruñean.

Mugarrri Alkesa - Zarautz

Kadeteak. Zapatua. 10:00. Musakolan.

FUTBOLA

Aloña Mendi - Mondra

Preferentea. Domekan. 16:30. Oñatin.

Mondra - Aldapetarrak

Ohor. Gazteak. Zapatua. 16:30. Atxabalpen.

Urki - Arrasate

Gazteak. Domekan. 15:30. Eibarren.

Arrasate - Sto. Tomas Lizeoa

Ohor Kadet. Zapatua. 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Eibartarrak

Infantilak. Zapatua. 09:45. Atxabalpen.

Arrasate - Elgoibar

Alebinak. Domekan. 11:00. Eibarren (Unben)

ESKUBALOA

Bidasoa - AGR Arrasate

Lehen territ. Domekan. 11:30. Bidasoan.

Arrasate - Elgoibar

Bigarren territ. Zapatua. 17:30. Iturripen.

Elgoibar - Gatz Museoa Jakion

Gazteak mut. Zapatua. 19:00. Elgoibarren.

Arrasate - Arrate

Gazteak nesk. Zapatua. 16:00. Iturripen.

Ordizia - Arrasate

Infantilak. Domekan. 09:30. Ordizian.

ERRUGBIA

Herensugeak - Frantziako talde bat

Lagunartekoa. Zapatua. 17:00. Garagartzan.

FUTBOLA

Mondrako zuzendaritzara aurkeztu gura duenak hilabete izango du horretarako

Orain dela hilabete batzuk aurreratutakoa berretsiz, Jose Luis Ezkurraren taldeak eguaztenean aurkeztu zuen behin betiko dimisioa

XABIER URTZELAI

Mondrak larri dagoen Aloña Mendi izango du zain domekan (16:30ean, Azkoagainen). Eguaztenean egindako batzar orokorrak, baina, garrantzia kendu dio derbiari. Aurreratuakoa konfirmatuz, oraingo zuzendaritzak utzi egingo du Mondra taldea.

Ez da lehenengo aldia Jose Luis Ezkurrak kluba utzi egin behar duela esaten duena. Aurrekoetan, erreleborik ez zegoela ikusita presidenteak eta bere taldeak lanean jarraitzea onartu izan dute, eta taldeak lehendik zeukan zorra kitatzea izan dute helburuetako bat. Horrekin batera, oraingo zuzendaritzak behin eta berriro esan du klubak jende gaztearen beharra duela, eta eurek dagoeneko eman dutela eman beharrekoa. Horregatik esan zuten denboraldi hasieran gehiago ez zutela jarraituko, eta eguaztenean berretsi zuten hori. Orain, hilabeteko epea izango da Mondra zuzentzeko hauta-

gaiak aurkezteko. Alde horretatik, Jose Luis Ezkurrak eta Patxi Iartzak bazkideak animatu gura dituzte: "Argi eta garbi esan gura dugu zuzendaritza talde berriak gure laguntza osoa izango duela, bai ekainera arte, eta baita hortik aurrera ere. Hori bai, guk beste maila batean egon gura dugu, atzealdean". Batzarrean esan zuten moduan, ezinbestekoa da erreleboa: "Leku batean urte asko egiten dituzunean, ilusioa eta gauza berriak egiteko gogoia galdu egiten dira, eta horregatik behar du Mondrak jende berria, orain arte egin ez ditugun gauza asko egin daitezkeelako".


BERREHUN BAZKIDETIK GORA

Mondra ez da bazkide gehien dituen kirol taldea, eta horretan ahaleginu beharko luke zuzendaritza berriak. Alde horretatik, Patxi Iartzak argi eta garbi esan zuen berrehun lagun baino gehiagoko talde batean inor ez badago ardurarik hartzeko gertu, taldeak hori merezi duelako izango dela.



Jose Luis Ezkurra eta Patxi Iartzak eguaztenean Monterronen egindako batzarrean.

FOTOKIROLA



Maria Jose Gilek binan-binan lortzen ditu urrezko dominak

Sevillan egin zuen moduan, joan den astean ere urrezko bi domina lortu zituen Maria Jose Gilek, Oviedon. Hantxe egin zuten Espainiako pista estaliko atletismo txapelketa, eta Arrasatekoa azkarrena izan zen 60 urtetik gorako 1.500 eta 3.000 metroko lasterketan. Lehenengo proba egiteko 6,36 minutu behar izan zituen, eta hiru kilometroko proban 13,53 minutu. Maria Jose Gilek 65 urte egingo ditu aurten, eta gorputzaldi ederrean dagoela erakutsi du asteburuan. Beste muturrean, gazte mailan, Arrasatek badu punta-puntako beste ordezkari bat: Markel Blanco. Arrasateko atleta Santiagon egingo duten selekzioen arteko Estatuko txapelketa izango da asteburuan. Markelek 7.500 metroko krosa egingo du. /X.U.

Leire Ezpeleta eta Isa Casado Pierra Menta lasterketan

X.U.

Joan den urtean egin zuten lanari esker, Isa Casado eta Leire Ezpeleta Pierra Mentako (Alpeak) lasterketan izango dira datorren astean. Eguaztenean hasiko da proba, eta zapatuan amaitu.

"Pierra Mentara joatea ez dakit saria edo zigorra izango ote den, proba gogorra izango da-eta", horixe esan digu Isak; izan ere, Alpeetako lau eguneko proba hori ez da txantxetako kontua izango: "Orain arte egun bakarreko lasterketak egin ditugu, baina Pierra Menta lau egun dira, eta lasai ibili beharko dugu. Lehenengo

eguneko proba ez da gogorra izango, 500 metroko desnibela dauka eta. 200 bikote izango gara, eta etapa horrek balioko du lehenengo sailkapen modukoa egiteko. Hurrengo hiru etapak, baina, sei edo zazpi ordukoak izango dira, eta 3.000 metroko desnibelak gainditu beharko ditugu. Hala, gure helburua izango da etapetan izango diren denbora-kontrolatik kanpo ez geratzea, eta lasterketa amaitzea".

Arrasateko bikoteak errespetua dio lasterketa horri: "Esan digute igoerak baino jaitsierak direla okerragoak, teknika handia behar delako. Frantziarrak, gainera, daukatena ematera joaten dira, eta kontuz ibili behar da".



Joan den otsailaren 6an, Luz Ardidengo lasterketako argazkia.

JUAN PRECIADO



Ezkerretik eskumara, Hezkuntza Saileko Juanito Barberan, Kulturako zinegotzi Ines Aldai eta Kulturako teknikari Jon Garai.

HEZKUNTZA/ Udaleko hiru sailek XV. Eskola Antzerkiaren Jardunaldiak antolatu dituzte

Antzerkiera gerturatuko dituzte 2.000 ikasletik gora

IKER BARANDIARAN

Udaleko Hezkuntza Sailak, Kultura Sailarekin eta Gizarte Sustapeneko batzordearekin, XV. Eskola Antzerkiaren Jardunaldiak antolatu ditu. 2.000 ikasle baino gehiago antzerkiaren alorrera hurbilduko dituzte, hainbat ekintzaren bitartez.

Udalak ekimen hori Haur Hezkuntzako azkeneko bi mailako, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako eta DBHko 1. eta 2. zikloetako ikasleei zuzendu die. Helburuak dira ikasleen artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen moduan lantzea; ikasleak antzerki eramatea antzerkia ikusten ohitzeko; eta kultura transmisioa eta aisialdia lantzea, besteak beste.

Hiru fasetan banatuta dago ekimena. Lehenengoan, DBHko 1. zikloko ikasleek eurek prestatutako bost antzezlan taularatu dituzte: *Zer eman, hura hartu*; *Tangala danba*; *Liburu magikoa*; eta *Zeledonio sastrea, hori bai desastrea*. 12-15 lagun ibili dira ikuskizun bakoitzean aktore lanak egiten; guztira, 80 bat gaztetxo, herriko ikastetxe guztietatik. Ikuskizun horiek Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleendako izan dira. Atzo, eguena, eta gaur, egubakoitza, egin dituzte. Azkeneko entseguak antzokian bertan egin zituzten.

Ekimenaren bigarren fasean, Haur Hezkuntzako, Lehen Mailako Hezkuntzako eta Derrigo-

rrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako antzerki-talde profesionalen emanaldiak egingo dituzte. Guztira, zortzi emanaldi izango dira: apirilaren 8an, 15ean eta 22an eta maiatzaren 13an; bina, egun bakoitzeko.

ANTZOKIKO AZPIEGITURA IKUSI

Hirugarren fasean, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek — eskolan antzerkigintza ikasten dabiltzanak — Amaia Udal Antzokiko instalazioak eta azpiegiturak ikusteko bisita didaktikoak egingo dituzte. Apirilaren 25ean, 27an

eta 28an izango dituzte horretarako hitzorduak.

Are gehiago, antzezlanak egin dituzten herriko ikasleek Amaia Udal Antzokiko arduradun teknikoekin laguntza izan dute entseguak egiteko, eta baita ere ikuskizunak egiterako orduan hainbat aholku eman dizkiete.

Herriko ikasle ugari batzen dituen ekimen horrek 13.740 euroko aurrekontua dauka. Hezkuntza Sailak 10.859 euroko partida du horretarako; Gizarte Sustapeneko batzordeak 1.712 euro eta Kulturak, 900 euro.

Kanpoko antzezlanak

Ekimen horren antolatzaileek hainbat antzerki talde profesional ekarriko dituzte Arrasatera, apirilean eta maiatzean.

Apirilaren 8an, Phanta Rhei taldeak *Alaia* ikuskizuna egingo du. Haur Hezkuntzako ikasleendako izango da. Bi emanaldi egingo dituzte.

Apirilaren 15ean, Hika taldeak *Groau* ikuskizuna egingo du. Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetako ikasleendako izango da. Yolanda Arrietaren lan baten oinarrituta dago.

Apirilaren 22an, Mutante Antzerkia taldeak *Hiri basatia* lana antzeztuko du. Honako hau Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetakoendako izango da.

Maiatzaren 13an, Pikor Teatro taldeak *Zapaldu marra* ikuskizuna egingo du. Lan hori Hezkuntza eta Kultura Sailak antolatu dute, Gizarte Sustapeneko batzordearekin batera. Berrikuntza moduan, Derrigo-

rrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleendako antzezlanak antolatzea erabaki dute. Ikuskizun horretan prebentzioaren gaia landuko dute, eta antzezlanak ikusi aurretik, ikasleek horren gainean lan batzuk egin beharko dituzte ikastetxeetan.

Martxoaren 8a aldarrikatzeko egitaraua antolatu dute

I.B.

Emakumeen Kontseiluak Martxoak zortzi Arrasaten eta munduan leloa duen egitarau mardula osatu du. Kale agerraldia, film emanaldia, azoka, antzerkia eta berbaldia egingo dituzte, besteak beste.

Astelehenean, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatu duten egitaraua aurkeztu zuten. Emakumeen Kontseiluak hartu du ardura hori, Udalaren laguntzarekin. Aurkezpenean izan ziren Udaleko Berdintasun teknikari Maite Barreña, Martxoaren 8ko kartel lehiaketaren irabazle Edurne Elkoro eta Gizarte Sustapenerako zinegotzi Joxe Etxeberria.

Antolatzaileek aditzera eman zuten zein den Martxoaren 8ko kartel lehiaketaren irabazlea. 16 lan aurkeztu dituzte, eta epai-

mahaia 21 urteko Edurne Elkoro arrasatearrarena aukeratu du.

MARTITZENETIK EGUBAKOITZERA

Martitzenean, hilaren 8an, hasiko dira ekintzak. 19.00etan, kale agerraldia egingo dute Seber Altubetik. Horren ostean, luntxa izango da osoko bilkuren aretoan. Eguenean, hilaren 10ean, Amaia Udal Antzokiko zineklubean, *Conversaciones con mamá* filma emango dute, 20:30ean.

Zapatuan, hilaren 12an, emakumeen azoka egingo dute osoko bilkuren aretoan —orain arte Seber Altubetik edo Herriko Plazan egin izan dute—. 10:00etatik eguerdira arte izango da, eta 13:00etan, bertsolariak izango dira azokan. Eguenean, hilaren 17an, *Prostituzioa eztabaidagai* berbaldia egingo dute Emakume Txokoa, 19:00etan. Egubakoitzean, *Grebak gaude* antzezlanak antolatu dute leku berean.



Argazkian, Martxoaren 8ko kartel lehiaketaren irabazlea eta Udaleko ordezkaririk.

KULTURAPILULAK

Iñurrategiren 'Gure Himalaya', Unax Ugaldere azkena eta film argentinar bat

Gaur, egubakoitza, kilometroen aldeko batzordeak Alberto Iñurrategi mendizaleak egindako *Gure Himalaya* filma emango du 20:00etan izango da, eta sarrera 3 euro da. Atzo, eguena, ere eman zuten, 18:00etan.

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, ez dute filmik emango. *Cochi dito Madrileño* antzezlanak egingo dutelako. Astelehenean, hilaren 7an, *Frío sol de invierno* drama emango dute. 90 minutu irauten du eta Pablo Malok zuzendu du. Hainbat aktore ezagunek esku hartuko dute: Unax Ugaldere, Marisa Paredesek eta Javier Perie-

rak, besteak beste. Zuzendariak Goya bat jaso zuen. Eguenean, hilaren 10ean, *Conversaciones con mamá* komedia emango dute zineklubean. 90 minutu irauten du eta Santiago Car-

ANTZERKIA / 'Cocidito Madrileño' antzezlanaren hiru saio, asteburuan

Madrilgo solaskideen astakerietan oinarritutako antzezlan, asteburuan

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Glu Glu antzerki taldeak *Cocidito Madrileño* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. Guztira, hiru saio egingo dituzte asteburuan, eta seguruenik ez da sarerarik geldituko. Konfirmatzeko, Amaia antzokira jo.

Azkenean heldu da horrenbeste iragarritako ikuskizuna. *Cocidito Madrileño* antzezlan Radio Euskadiko *Más que palabras* irratsaioa atal baten oinarrituta dago. Javier Vizcaino kazetariak gidatzen du saioa, eta, hain zuzen, bertan jasotzen ditu Madrilgo hainbat komunikabidetan Euskal Herriko kontuen gainean esaten dituzten astakeriak.


Glu Glu antzerki taldeak irratsaio horretan oinarritutako antzezlan egitea erabaki zuen. Horretarako, Galder Perez aktore eta kazetariarengana jo zuten. Galder Perezek eta antzerki zuzendari Eloi Beatok Radio Euskadik utzitako 3.000 irratsaio-tarte entzun behar izan zituzten.

Handik abiatuta, antzezlan sortu zuten. Tarte esanguratsuenak aukeratu, gaika sailkatu eta esaldi horiek elkarrizketetan moldatu zituzten.

ZUZENKO IRRATSAIOA ETA ESKETXAK
Galder Perezek eta Eloi Beatok ez zuten gura tertuliano batzuk mahai baten bueltan jarri. Horren ordez, erabaki zuten *Azul-Colorado* izeneko irratsaioa asmatzea, eta hori antzokian bertan zuzenean egitea. Horrekin batera, irratsaioan aipatutako gaien gaineko esketxak antzeztuko dituzte. Guztira, 70 pertsona agertuko dira esketx horietan: euskaltegi-tako ikasleak, ikastolako umeak, egunkarietako kazetariak, politikari ezagunak...

Ikuskizunak erritmo bizia du, eta, arduradunen esanetan, komeni da ikusleak kontzentratuta egotea, informazio ugari ematen delako. "Are gehiago, Madrilgo tertuliano batzuek oso txarto berba egiten dute, eta ia ez zaie ulertzen".

Bestalde, Glu Glu taldekoek aditzera eman dute ahalegin handia egin dutela Madrilgo hainbat



Esketxen bitartez, hainbat komunikabidetan esandakoak irudikatuko dituzte.

tertulianok euskaldunen eta euskal erakundeen gainean esaten dituzten astakeriekin barrea eragiteko: "Gure buruari barre egiten ikasi behar dugu, eta beste batzuek esaten dituzten astakeriekin gutxiago sufritzen".

Honako hauek dira ikuskizunean lan egiten duten aktoreak: Galder Perez, Ramon Castro, Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia eta Josean de Miguel. Bostak telebistako zein irratsaioetan eta hainbat antzezlanetan lan egingo dute.

Glu Glu taldeko arduradunek ez dute uste ikuskizun hori oso esportagarria denik: "Ez dugu uste Euskal Herrikan kanpo Madrilgo gure gainean esandakoak ondo ulertuko dituztenik, ezta testuinguruan jartzen jakingo dituzten ere. Agian Katalunian bai, han hobeto ulertuko dituzte".

Bestalde, komeni da aipatzea antzezlan hori etengabe birmoldatzen dabilzala. Kontua da *Cocidito Madrileño* estreinatu zutenetik jasotzeko moduko beste hainbat gertaera izan direla, eta horiek sartzeko ahalegina egiten dabilzala.

martxoak
zortzi
arrasaten
eta munduan

Martxoaren 8ko
egitaraua



Martxoak 8, martitzena

19:00 MANIFESTAZIOA

Seber Altube plazan

20:00 LUNTXA Osoko bilkuren aretoan

Martxoak 10, eguena

20:30 ZINEA Amaia antzokian

"Conversaciones con mama"

Martxoak 12, zapatua

10:00 EMAKUMEON AZOKA Udaletxean

13:00 BERTSOLARIAK Udaletxean

Martxoak 17, eguena

19:00 HITZALDIA Emakume Txokoan

"Prostituzioa eztabaidagai"

Martxoak 18, egubakoitza

20:00 ANTZERKIA Emakume Txokoan

"Greban gaude"

ELKARRIZKETA

JUKEBOX/MUSIKA TALDEA

“Beste talde batzuen kantuen jotzea oso polita da, baina guk sortutakoa erakutsiko dugu”

IKER BARANDIARAN

Jukebox taldeak diskoa kaleratu du GP diskoetxearen laguntzarekin. Hamar kantu propiorekin osatu dute. Bihar, zapatua, Elorrioko Arriola ateneoan kontzertua egingo dute, eta gogotsu daude.

Ia lau urteko ibilbidea egin duzue orain arte.

2001eko San Juanetan, Brian, Zuhaitz eta Enaitzek bat egin genuen, ordura arte egiten genuena baino musika rock-and-roll-zaleagoa egin gura genuelako. Handik gutxira, Brutal Melody taldean ibilitako Txiskori gonbidapena egin genion; eta, azkenik, Aitorri abesteko eskatu genion. Sasoi baten kontzertuak egin barik egon ginen, Aitor eta Txisko kanpoan ibili zirelako, baina denbora hori abestiak egiteko erabili dugu. Orain arte 30 bat kontzertu egin ditugu.

GP diskoetxearekin harremana egin aurretik, beste diskoetxe batzuekin berba egin zenuten?

Ez, ez dugu inolako harremanik izan beste diskoetxe batzuekin, GPren gure zuzenean jo genuen. Bagenekien Señor No eta beste talde batzuekin lan egiten zutela, eta lan egiteko modua egokia iruditu zitzaigun. Gorputzak disko bat grabatzea eskatu zigunean egin genuen, eta, behin diskoa grabatuta, egindakoa erakutsi genien. Lana kaleratzea erabaki zuten, eta baiezkota eman ziguten.

Diskoa zuzenean, guztiok batera eta klaketa barik grabatu zenuten...

Bai, instrumentu guztiak batera eta horren ostean, ahotsak. Batez ere, diruarengatik egin genuen horrela, kostuak merkatzearen. Hala ere, bostok batera jotzen ohituta gaude, horrela egiten dugu lana, eta guretzako errazagoa da. Guztia oso ondo joan zen,



GORKA URIARTE

“Diskoa bi egunean guztiok batera eta zuzenean grabatu genuen, kostuak merkatzearen”

eta bi egunean grabatu genuen guztia Gallartako Groove grabazio estudioan.

Zeinek idazten ditu hitzak? Neskak eta harremanak, parranda eta rock-and-rolla

“Danbakak talde asko lana serioago egitera bultzatu ditu; oso ideia ona da hasiberriendako”

berbagai izan dituzue, batez ere...

Gainontzekook ideia batzuk ematen dizkiogu, baina Aitorrek egiten ditu. Batzuk benetako gertaerak dira, gogo-aldarte kon-

“GPK kontaktu onak dauzka eta hainbat kontzertu lortuko dizkigu; diskoa ondo banatuko dute”

kreten eta sentimenduen gainekoak, asmatutakoak, paranoiak... Gehien motibatzen duten gaiak harremanen gainekoak dira, baina badira parrandaren gainekoak eta baita kritika ere

dutenak. Hitzak gehiago landu gura ditugu, eta ukitu pertsonala ematea ezinbestekoa da. Bide horretan gabiltza.

Bertsioei esker egin zineten ezagun, baina diskoan kantu guztiak zuenak dira...

Bertsioak jotzea oso polita da eta jendeak oso ondo pasatzen du, baina ez dira gureak. Guk sortutakoa erakutsi gura genuen eta zerbait berria eman. Hala ere, oraindik zuzenean beste talde batzuen kantak jotzen ditugu, gustuko dugulako. Bertsioak egitea oso eskola ona da, asko ikasten da *mais*u horiengandik.

Diskoaren diseinua zuek egin duzue.

Bai. Diskoetxera joan aurretik lan guztia egin gura genuen. Diseinu lana Zuhaitzen egin du, eta gainontzekook ideiak eman eta lagundu egin dugu.

Hemendik aurrera GP arduratuko da zuen kontratazio lanaz?

Lagundu egingo digu. GPK kontaktu onak dauzka eta hainbat kontzertu lortuko dizkigu. Bestalde, guk askatasuna daukagu beste kontzertu batzuk egiteko, eurei aditzera emanez gero. Uste dugu diskoetxe horretan lan egiten dutenek asko lagun diezaguketela. Bestalde, diskoa ondo banatuko dute, eta promozioa egiten dabilta. Hori da garrantzitsua.

Bukatzeo, zer iritzi daukazue Danbakaren gainean? Ez zineten apuntatu, baina badakit jarraitu duzuela...

Interesgarria izan da. Leheniketa bat da, eta ez gara horren osazaleak, baina oso positiboa izan da telebistan ibarreko taldeak ikustea. Talde asko lana serioago egitera bultzatu ditu. Oso ideia ona da hasiberriak diren taldeendako, batez ere euren dantak. Halako areto txukun baten jotzea eta abar. Hala ere, gure ustetan telebistak emaitza apur bat aldatu bestu egiten zuen.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

 Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

JOSE LUIS ABUIN

kiromasajista - naturopata - akupuntorea



Lokal berria :

Musakolako Udal Kiroldegia - ARRASATE - 943 77 16 77

San Josepe 10 behe D - ARRASATE - 943 77 01 33

20 urte baino gehiago zuen artean

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrian erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

BOTEPRONTUEN

Agurtzane Martiarena

ALDAPE JATETXEA

XABIER URTZELAI

Hainbat urtien ospitaleko kafeterixan ibilli da lanien Agurtzane, baiñe Gabonetatik hona Aldape jatetxie gobernetan dau. Lehen esaten euen komoduau zala bestiadako lan egittie, eta ikusi zelan dauen oin. Jatetxie eruetera animau, daukon dana emun, eta oingoz gustora dabil.

Lanien sukaldien, eta etxien?
Etxien ez naz sukaldien ibiltten, dana emuten dustie egindde!
Ohittu gare sukaldarixek telebisiñuen ikusten. Zein aukeratuko zeuke?
Artzak. Ez da telebisiñuen gehixen gustetan jatena, baiñe bere jatetxien egon gitzen eta asko gustau jaten.

Ze emun dozue eguerdixen?
Makarroiiek bexamelakin, entsalada normala, arroz entsaladie, baba gorrixek eta lekak.

Aste bukaeretan ala aste barruen lan haundixen?

Aste bukaeretan, esango neuke. 20 euroko menu berezixek eukitten dou, eta beste ezer gure izenez gero aurretik enkargetako aukerie be emuten dou.

Denporatxo egon da Aldape zerrauter; igarriko da, ala?

Bai, eta gure doune da poliki-poliki martxie hartu eta jentie erakarri. Urte erdi egon da jatetxie zerrauter, eta denpora horretan jentie beste leku batzuetara juen da.

Garai baten izen ona euen jatetxiek.

Bai, baiñe ez dot gure lehenguekin konparau. Guk beste modu baten egitten dou lan, eta beste gauza batzuk ofreziduten dou. Gure dou, baiñe, garai baten egoten zan jente mordue egotie.

Etorri jatzu klienterik sukaldara zorionak emutera?

Konfiantzie dauketen jentie etorri izen jat, baiñe ezezagunik ez. Hori bai, jentiek esan izen dust gustora geratu dala, eta hori oso pozgarrixer izeten da.

Jana preparau bai, baiñe holako sukalde bat jasotiek be



“Aste bukaeretan 20 euroko menu berezixek emuten dou, baiñe enkarguek be hartzen dou”

lana emungo dau, ala?
Ez pentsau, azkenerako ohittu egitten zara. Badau esaera bat esaten dauena asko garbiketetan dauena baiño garbixau dala gutxi zikinketan dauena. Hortxe dau gakue.
Zeun lanerako ezinbestekue dan gauza bat.
Garbittasune.
Zeure laneko gauza txarrena?
Ordutegixe. Aste bukaeretan berandü bukatetan dou, eta gainera, jentie ondo pasetan dabillen bittartien geu lanien ibiltten gare.
Eta onena?
Lanien gabitzenok ondo konponketan garela, eta geure artien barre mordue egitten doule. Asko eskerketan da hori.

“Asko garbiketetan dauena baiño garbixau dala gutxi zikinketan dauena; hortxe esaerie”

Zerk emuten dutzu begixetan min?
Sukaldie desordenaute eukittiek eta gauzak neuri gustetan jaten moduen ez egotiek.
Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?
Oin aparkaleku mordue dabitze egitten. Zinie falta da.
Eta ze dauko ona?
Danetik dauketzule herrixen.
Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat
Klasikuek gustetan jat / *El Código Da Vinci* nabil leiduten / U2 taldie gustetan jat, baiñe ez dauket kontzerturako sarrerarik.
Kapritxo bat?
Biaje on bat egittie.

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Iriarte

Mexikora / 2004ko abuztuan

Palenquen utzi genuen joan den astean Amaia, bakarkako bidaia hasteko gertu: “Neukan turista itxura ahalik eta gehien disimulatzeke, erlojua ere kendu nuen. Meridara abiatu nintzen, eta han konturatu nintzen bakarrik bidaiatzea beste kontu bat izango zela, bakarrik egonda ezin nuen-eta prezioak jaitzeko tratuan egin. Israelgo bikote batekin joan nintzen aterpetxera, eta hiruron artean ordaindu genuen taxia”.

Amaiak argi zeukan hamaika barik ezin zela etxera itzuli: “Ederki mareatu ninduten hamaika bila ibili nintzen. Hara eta hona ibili nintzen, eta banekien gehenez zenbat ordaindu behar nuen; gogaituta amaitu nuen”. Autobusean joan zen Meridatik Chichen Itzara: “Maien hondakinak ikusten nenbilela konturatu nintzen jendeak hiru edo lau eskumuturreko zituela, eta nik bakarra neukan, sarrerakoa. Zerbait gaizki egin nuela uste nuen, baina gero esan zidaten euren hotel eta bestelakoetan emandako eskumuturrekoak zirela. Bistan da oso ezberdina dela zure kontu edo agentzia bidez bidaiatzea”.



“Taxia garestia zenez bizikleta bat alokatu nuen, baina...”

Ederra gertatu zitzaion Cenote-ko lur azpiko putzuetara joan zenean: “Taxia garestia zenez, bizikleta bat alokatu nuen, kontuan hartu barik putzuetatik itzultzerakoan egingo zuen beroa sekulakoa izango zela. Ederto egoten zen putzuetan, baina uretan baino gehiago busti nintzen itzulerako bidean”.

Valladolidetik Oaxacara joan zen Amaia: “23 ordu egin nituen autobusean, baina bidaia luzeetako autobusak oso onak dira. Hori bai, aire girotuarekin ez daukate neurrik. Oaxacako aterpetxean koadrila polita elkartu ginen; elkarrekin hartu genuen trago bat, eta bakoitzak ordura arte egindako bidaia kontatu zuen. Ikustekoa da jendea nondik nora ibiltzen den; munduari itzulia egiten zebilen neska italiar bat zegoen gure artean”. Mexiko Hirian, San Miguel de Allenden eta Guadalajaran hainbat egun egin da itzuli zen Amaia Mexikotik.

XABIER URTZELAI



Autobusean, bizikletan, alokatutako autoetan eta... asto gainean.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



San Isidro elizaren atzealdeko eraikinak hainbat erabilera izan ditu azkeneko urteotan.

UBANE MADERA

Elizarekin egindako hitzarmenaren bitartez, elkarte berria Musakolan

IKER BARANDIARAN

Udalak eta Gipuzkoako Gotzaindegiak hitzarmena egin dute, Udalak San Isidro elizako atzealdeko eraikina 10-15 urtean erabil dezan. Udalaren asmoa da eraikin horretan konponketa eta egokitze lanak egitea, datozen urteetan Musakolako erretiratuen elkarte izan dadin.

Gaur egungo Musakolako erretiratuen elkarte aspaldi txiki gelditu zitzairen hango erabil-tzaileei. Izan ere, elkarteak 545 bazkide ditu, eta ez dira guztiak sartzen. Are gehiago, ikastaroak eta bestelako ekintzak egiteko beste elkarte batzuk erabili behar izaten dituzte. Arazoa aspalditik dator, eta azkeneko urteotan Udalarekin hainbat batzar egin dituzte, arazo horri konponbidea aurkitzeko.

BI AUKERA AZTERTU ZITUZTEN

Udalak bi aukera aztertu zituen: batetik, elkarte San Antolin eskolako eraikinean ipintzea; eta bestetik, San Isidro atzeko eraikina egokitzea. Bigarrena aukeratu zuten. Hala ere, Udalak asmoa du etorkizunean San Antolin eskolako eraikinean behin betiko erretiratuen elkarte eta beste zerbitzu batzuk jartzeko. Hala ere, horretarako, eskolak kendu eta jabea Udalaren esku

gelditu beharko litzateke.

LKS enpresak idatzi du eraikinaren egokitze proiektua, Udalak hala eskatuta. Egokitze lanen helburua da eraikin horretan erretiratuek egoteko leku nahikoa izatea eta hainbat ekintza egin ahal izateko leku egokia izatea. Horretarako, hainbat lan egin beharko dituzte.

ERABILERA UGARI IZAN DITU

Eraikin hori XX. mendearen hasieran egin zuten. Zerrajerak zerrategia jarri zuten, eta horren ostean Gotzaindegiak hartu zuen jabetza. Elizak hainbat erabilpen eman zizkion: besteak beste, zinema areto moduan erabili zuten. Azkeneko urteotan, auzoko hainbat elkarte erabili dute, eta orain

dela gutxi arte Musakolako gazte txokoaren kokagunea izan da.

Udalak honako egokitzapen lanak egingo ditu eraikinean: beheko solairua egokituko dute; erabilpen mugatuko tarteko solairua jarriko dute; estalki estruktura eraberrituko dute; eta leihoak aldatuko dituzte, besteak beste. Lanen aurrekontua 267.000 euro da, ekipamendua barne, eta, behin esleipena egin ostean, lanek sei bat hilabete iraungo dutela aurreikusitako dute.

Udaleko arduradunek aditzera eman dutenez, eraikinaren egoera ona da orokorrean. Horra oso sendoak ditu, baina egurrezko estruktura eta estalkia ez daude oso egoera onean. Bestalde, leiho bitartetik hotza sartzen

da. Erretiratuendako giro epelagoa lortzeko, arazo hori saihestu egingo dute.

ERRETIRATUEN ONIRITZIA

Egubakoitzean, Musakolako elkarteak batzar orokorra egin zuten, eta oso begi onez ikusi zuten Gotzaindegiaren eta Udalaren arteko hitzarmena. Erretiratuen elkarte Udalarekin batera buru-belarri ibili da azken urteotan arazo horri konponbidea eta elkarteari kokagune aproposak bilatzen. Gaur egun duten egoitza "eskasa" dela diote, eta oso baikor daude estreinatuko duten egoitzak bulegoa eta areto handiagoa izango dituelako, orain arte izan ez duten bezala.

PSE-EE ez dago ados erretiratuen elkarteko proiektuarekin, zailtasunak dituztenendako oztipoak izango direlako

Udalbatzarrak aho batez onartu zuen Elizarekin hitzarmena sinatzea, Musakolako erretiratuen elkarte San Isidro elizaren atzealdean jartzeko. Hori bai, hitzarmenari onospena eman arren, Alderdi Sozialistak kritikatu egin du zaharren egoitza eraikitzeke egin duten proiektua.

PSE-EEko Paco Gartzia asteleheneko osoko bilkuran azaldu zuenez, ez da

egokia Udalak bultzatzea Musakolako zaharren egoitzaren moduko proiekturik. Haren arabera, eraikinean tarteko solairu bat egin behar dute. Eta hara iristeko bide bakarra eskailerak dira.

Alkateak zera erantzun zion: batetik, tarteko solairu hori erabilpen mugatuko izango dela; eta bestetik, eraikinaren egiturak ez duela uzten igogailurik edo halakorik ipintzen uzten.

LABUR

1931n eta 1937an jaiotako urteroko hitzordua

Bihar, zapatua, 1931n jaiotako urteroko hitzordua egingo dute. 12:30ean meza entzungo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, txikiteoa egingo dute. Eta 14:30ean, Hostalean bazkalduko dute. 943 79 80 08 (Juan Jose).

1937an jaiotakoek martxoaren 12an egingo dute jai. Interesatuek hilaren 6a aurretik eman beharko dute izena. 943 79 10 57 (Jose Riviere).

Bazkide kuotak ordaintzeko epeak bukatzeaz daude

Erretiratuen elkarte batzuek aditzera eman digute bazkide kuotak ordaintzeko epeak bukatzeaz daudela, eta bazkideei eskatu diete lehenbait lehen elkarteetara jo eta ordain dezatela. Abaroa eta Musakolako elkarteetako batzarrak martxoaren bukaera arte luzatu dute epea, eta Toki Argi eta Uribarriko elkarteetan laster itxiko dute hori egiteko aukera. Bazkide guztiek derrigorrez ordaindu behar dute kuota.

Batzar orokorra eta txangoa, Toki Argiren eskutik

Hilaren 11n, Santa Marina Toki Argi erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du, 16:30ean. Elkarteko 600 bazkideak deituta daude. Besteak beste, urtean egindako ari gainbegiratu egingo dute, eta datozen hilabeteetan egin gura dutena emango dute aditzera. Bestalde, hilaren 19rako egun bateko txangoa antolatuko dute Iruñera. Interes duenak elkarteko bulegoan jaso ahal izango du informazio gehiago.

Calpera (Alacant) eta Parisera joateko aukera

Abaroa erretiratuen elkarteak Calpera (Alacant) bidaiari egingo du maiatzaren 18tik 22ra bitartean. Abaroako bazkide ez direnek ere eman dezakete izena, baina bazkideei lehentasuna izango dute.

Bestalde, Toki Argi erretiratuen elkarteek Parisera joko dute maiatzaren 12tik 19ra bitartean. Elkarte horietakoak ez direnek ere eman ahal izango dute izena, horretarako leku gutxi batzuek dituzten dira-eta.

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Nongo jantzi tradizionala du jantzita argazkiko dantza-taldeak? Arrastoa: herri horretan olagarroa jateko ohitura handia dute.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

Hojiblanca oliba-olio birjina estra litroa

3,49€ 581 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PEDRO AGIRIANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Pedro!
Galderen erantzun zuzena:
Bedoñan.

ARRASATEKO HISTORIA

Murugain mendiko herensugearen kondaira

'EL MUNDO ENCANTADO DE...' / J. DUESO

Arrasaterekin lotutako mitologia kondairen artean, ezagunena da Arrasateko herensugearen legenda. Herriari, behintzat, hortik dator kio bi izenetako bat: *Monte-del-Dragón* (Mondragon).

Bi bertsio ditu gizaldiz gizaldi transmititu den elezhar horrek. Lehenengoak honako hauxe dio:

"Arrasateko Murugain mendian herensuge bat bizi zen. Herri-tarrak guztiz ikararuta zituen, piztitzarra egunero jaisten zen-eta Mandogainera, eta herritar bat irensten zuen.

Behin, herritarrek erabaki zuten zozketa egitea dragoiak zein irentsiko zuen erabakitze eta gainerakoak munstroengandik babesteko. Zozketa haietako batean, indartsu bati tokatu zitzaion dragoiaren janari izatea. Baina hark erabaki zuen nahiago zuela herensugeari aurre egin hark irenstea baino. Hori buruan, burdinazko barra bat goritu zuen eta harekin Arrasate Gainera igo zen. Dragoia aurkitu zuenean, odol hotza galdu barik, gizonak barra ez-tarri zuloan sartu zion dragoi-ari. Piztitzarra zaurituta zegoela aprobetxatu eta arrasatearrek berehala akabatu zuten dragoia".



UBANE MADERA

Sasoi bateko Mandogain Santa Barbara parkea da gaur egun; hantxe dago brontzezko dragoia.

ARGIZARIZKO EMAKUMEARENA

Elezaharraren bigarren aldaerak dragoia akabatzeke beste bide bat erabili zutela dio. Lehengoaren antzera, baina ez guztiz berdin:

"Murugaingo dragoia sarri jaisten zen Arrasatera, pertsonak eta animaliak irenstera. Tris-

Dragoiak isatsarekin lurrean utzitako arrastoa aprobetxatu eta Olandixorako bidea egin zuten gero

kantza handiak eragiten zituen herrian. Hori sailhesteko, hitzarmena egin zuten arrasatearrek dragoiarekin: urtean behin don-tzeila bat emango zioten, lasaitasunaren truke.

Urtero-urtero, kale egin barik jaisten zen dragoia hitzartutako-

aren bila, Mandogainera. Zegokion dontzeila ematen zioten han. Kondairak dio erritu hori horrenbeste urtean luzatu zela, dragoiak isatsarekin egundoko arrasto sakona utzi zuen bidean. Urteak geroago, arrasto hura erabili zuten Arrasatek Olandixo base-rri-rako errepidea egiteko.

Baina halako batean aspertu egin ziren arrasatearrek egoera harekin, eta dragoiari aurre egitea erabaki zuten. Zera pentsatu zuten: argizarizko emakume eder bat egitea eta benetakoaren orde ematea dragoiari.

Hala egin zuten. Dragoia irensten hasi zen argizarizko emakumea. Halako batean, olagizon mordoa agertu zen eta ahotik gori-gori ipinitako burdinazko barra bat sartu zioten. Barrualde guztiak kiskali zizkioten dragoiari eta bertan akabatu zuten. Harrezkerro, Arrasateri Mondragon izena gehitu zioten eta herritarrek bake-bakean bizi izan dira".

Gaur egun, dragoiak oraindik badu bere lekua Arrasaten. Santa Barbara parkearen gainean brontzezko irudi bat dago, dragoia irudikatzen. Herriaren armarrarian bertan ere ikus daiteke dragoiaren irudia. Eta San Juanetan dragoia garaitu zuteneko eguna ekartzen dute gogora, Herriko Plazan.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko martxoaren 4a / 142. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Martxoaren 8arengatik ospakizun astea antolatu du Itur-Zurik

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, hasiko dira Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen Aramaion. Itur-Zuri elkarteak deituta, 60 bat emakumek Donostiara txangoa egingo dute. Horrez gainera, martitzenean, egunean eta barikuan ere izango dituzte ospakizun ekitaldiak.

Ia-ia autobusa bete egin du Itur-Zuri Emakume Elkarteak Donostia ingurura antolatu duten txangorako. Goizean goiz aterako da Aramaiotik. Eta Txillida Leku ikustera joango dira aurrena, Hernanira. Gero, handik, Miramonerako bidea hartuko dute, hantxe dagoen Kutxa Espazioa ikustera joango dira-eta. Eguna borobiltzeko, sagardotegi garaia dela aprobetxatu eta bazkaria egingo dute sagardotegian, Aramaioko emakumeek.

MARTITZENEAN, HITZALDIA

Gero, martitzenean segituko dute emakumeen eguna ospatzen, martxoaren 8an, hain zuzen ere. Hitzaldia antolatu du Itur-Zurik egun horretarako. Saha-



Astero batzen da Itur-Zuriko Zuzendaritza batzordea, ekitaldiak antolatzeko.

rako errefuxiatuen bizitzaren gaineko gaia aukeratu dute. Sahararen aldeko Arabako elkarteak kide batek emango du hitzaldia. 18:30ean hasiko da, kultura etxean.

EGUENEAN, BIDEO-KAFEA

Eta egunean, urtero moduan, emakumeekin lotutako film bat emango dute kultura etxean, eta gero, kafea egingo dute, tertulierekin, jakina. Aurtengo saio-

rako *Las Chicas del Calendario* komedia aukeratu dute. Emakume batzuen gaineko istorioa da, dirua lortu behar dutela-eta hori egiteko asmatzen dutenaren gainekoa. Filma 18:30ean izango da.

BINGO-AFARIA

Emakumeen eguneko ospakizunekin bukatzeko, bingo-afaria egingo dute gaur zortzi, barikua. 19:00etan hasiko da, betiko moduan, eskolako jangelan. Eta urtero moduan, arrakasta izango duela espero dute Itur-Zurikoek. Iaz, esaterako 40 emakumek parte hartu zuten.

ITUR ZURI ELKARTEA

Aramaioko Itur-Zuri Emakume Elkarteak 148 bazkide ditu gaur egun. Eta martxoaren 8ko ekitaldiez gain, bestelakoak ere antolatzen ditu herrian: aire libreko margo lehiaketa, Aratusteetako txokolatada, aerobic, yoga eta gimnasia ikastaroak, eskulanak... orokorrean hartuta, herritar mordoak parte hartzen du Itur-Zuri elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan, batez ere emakumeek.

Martxoaren 16an, Korrika jaia egingo dute

U.M.

Aramaioko Korrika batzordearen oraingo asteko batzarrean, Korrika iristen denerako ospakizun-jaia antolatzen ibili dira. Horren arabera, arratsaldean, Korrika Txiki izango da. Eta iluntzean, 19:00etatik aurrera txokolatea eta musika izango dira, besteak beste. 21:30ean iritsiko da Korrika Aramaiora.

San Martin Eskolakoak 15:00etan aterako dira Korrika Txiki egitera. Dagoeneko badabilta marrazkiak eta petoak lantzen.

Gainerako herritarrendako, berriz, 19:00etan hasiko da jaia.

Trikitilariak, bertsolariak, dantzariak eta txalapartariak hotzak kentzen ibiliko dira, Korrika iristen denerako. Txokolatada ere antolatu dute, plazan. Asmoa da 21:30era arte jai-giroa izatea eta gero, Korrikarekin bat egitea. Bederatzi kilometro dagozkio Aramaiori, hortaz, badago korrika egiteko aukera nahikoa. Horren harira, Korrikako ibarreko arduradun Ibai Redondok jakinarazi digu oso erantzun ona jaso dutela aramaioarrengandik, dagoeneko sei kilometro saltzea lortu dute-eta. Halaber, jakinarazi digu gainerako kilometroendako dirua eskatu egingo dutela saltokietan eta bestelako elkarteetan.



Orain dela bi urte ere fin-fin ibili ziren aramaiorarrak, Korrikan.

LABUR

Andere Arriolabengoa sailkatu egin da

Joan den zapatuan jokatu zuten Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketan. Aramaiorarrak ez ziren lehiatu kanporaketa horretan, baina han parte hartu zuten bertsolarien puntuak arabera erabaki behar zuten finalaurrekoetarako sailkapena. Hala, Arabako Bertsolari Elkarteak jakinarazi du gaur puntuak esku artean, aurreko kanporaketatik lehenengo bi bertsolarien lortutako puntuak finalaurrekorako sailkapentza: Zigor Enbeitak eta Andere Arriolabengoa. Horren esan nahi du Iker Agirre delako sailkatu.

Finalaurrekoak martxoaren 10an jokatu dituzte. Bi izango dira: 12an eta 19an, Amurru eta Legutianon, hurrengoak hurren. Andere Arriolabengoa batekin batera, Manex Agirre aramaiorarra ere lehiatuko da, iaz finalista izateko asetu zuelako. Gero, finala apirilaren 9an jokatuko dute Gasteizen. Sei bertsolari izango dira. Arabako txapelketan izateaz gainera, jokatu izango dute, baita ere, Euzko Herriko bertsolari txapelketarako puntuak.

Martxorako umeendako zinemak saioak antolatuta

Udalak jakinarazi digunez, Gasteizko Eko enpresak antolatuko ditu martxo osorako zinemak ma-saioak, umeendako zinemak guztiak domeketan izango dira, 17:00etan hasita. Hastezko, etzirako, domeka. *Spider-Man* super-heroiaren gaineko film emango dute. Hurrengo domekan, hilak 13, *Piratas de Caribe* abenturazko film komikoa emango dute; John Depp da filmeko protagonista bat. Gero, martxoaren 20an, *Shin-Chang*, el rezo emango dute. Jakina, martxoaren 21an bizidunen film bat bukatzeko, martxoaren 22an domekarako ere marrazki bizidunen film bat aukeratu dute: *Espantatiburones*.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Borika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoaren orduetan eskaeraren arabera berbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUAN, 'MAR ADENTRO'

Aski ezaguna zaigun filma emango dute oraingo honetan: Alejandro Amenabarren *Mar Adentro*. Javier Bardem, Belen Rueda, Lola Dueñas eta Mabel Rivera aktore ezagunak azaltzen dira eutanasia berbaigai duen film horretan. Gogora ekarri beharra dago joan den domekan Hollywooden egin zuten ekitaldian Oscar saria eman ziotela *Mar Adentrori*, atzerriko film onena izatearren. Horrez gainera, 14 Goya sari ditu eta Javier Bardemek Veneziako Mostrako aktore onenaren saria irabazi du. Datozen barikuotan, Oscar saridun film gehiago edo Oscar sariekin zerikusia dutenak emango dituzte.

KZGUNEAN, ADOBE ACROBAT

Martxoari dagokionez, datorren astelehenean, hilaren 7an, etorriko da KZGuneako tutorea. 09:00etatik 13:00ak arte zabalduko dute aretoa; eta 11:00etatik 13:00ak arte Adobe Acrobaten gaineko ikastaroa emango dute. Interesa duenak bertara joatearekin nahikoa du.

Bigarren eskuko liburuen azoka egingo dute, Liburuaren Egunean

U.M.

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada liburu azoka antolatzen dabil. Asmoa da aramaiorrei eskatzea etxean baztertuta dituzten liburuak, gero azokan saltzeko. Liburuak udaletxera eraman behar dira, goizez; eta liburutegira, arratsaldez.

Edozein motatako liburuak hartzeko gertu dago herriko gazte taldea; baita edozein hizkuntzatan idatzitako liburuak ere. Gero, Nazioarteko Liburuaren Eguna aprobetxatuko dute bigarren eskuko liburuen azoka ipintzeko; apirilaren 23a, hain zuzen ere.

DIRUA, ANGOLARA

Hori bai, gazteek argi utzi nahi dute batutako dirua ez dela izango edozertan gastatzeko: "Asmoa da dirua gobernuz kanpoko erakunde bati ematea"; argitu digu ekimenaren antolatzaileetako batek, Alex Aginagalek. Gaineratu digu dagoeneko pentsatuta dutela ze-



Hamabostean behin elkartzen da Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada ekimenak-eta antolatzeko.

ni eman: "Halakoetan, askotan beldurra izaten da batutako diruari emango dioten erabilerarengatik; horregatik erabaki dugu ezagun batzuen bitartez bideratzea".

Esan digu Angolara bidaliko dutela, misiolari dagoen apaiz bati emateko; besteak beste, eskola eta jangela eraiki ditu han eta alfabetatze prozesuari ekin dio.

Horri laguntzeko emango dute dirua. Saltzen ez dituzten gaztelaniazko liburuak, berriz, seguru aski Kolonbiara bidaliko dituzte, Diputazioaren bitartez.

BOTEPRONTOAN/ Paki Gil · Muru landetxeko arduraduna

"Aste Santuan edo udan edozein lekutatik datoz; Australiatik ere etorri izan dira, eta Hegoafrikatik"

Muru landetxearen gainean zerbait gehiago jakin nahian, Paki Gil Arrotxarekin berbetan izan gara:

Gantzagakoa zara?

Ez. Umea nintzela Aramaion bizi izan ginen (nire familia Andaluziakoa da), gero Arrasatera etorri ginen. Eta ezkondu eta gero Aramaiora itzuli nintzen, orain dela ia-ia 14 urte. Muru baserria erosi genuen...

Zuena da Aramaioko lehenengo landetxea. Zela hasi zineten horretan?

Baserrian bi familia bizi gara. Erosi genuenean, hasieran beheko solairua konpondu genuen, han bizitzeko. Abererik ez genuen. Behin, landetxeen berri izan genuen eta erabaki genuen aukera hura aprobetxatzea. Baserria guretako handiegia zen. Normalean, jendeak animaliak-eta ditu eta gehiago aprobetxatzen du baserria. Guk ez. Gainera, beti tabernan ibili izan naiz, jendaurrean lanean... Eta Gantzagatik egunero lanera joan-etorria egin beharrean, ni han geratu nintzen eta landetxea ipini genuen.

Etxe erdia egokitu duzue, beraz, landetxea egiteko?

Bai; gu bizi gara behean eta landetxea egiteko goiko solai-



"Erretiratuei oso garestia iruditzen zaie landetxea, ohituta daudelako bidaia merkeetara"

ruan lanak egin genituen, ganbararen zati batean. Hiru logela bainugelarekin, egongela handi bat eta sukaldetxo bat daude. Orain dela hamar urte-edo izan zen hori.

Eta harrezkero, zer moduz?

Bueno. Landetxeko lana denboraldiaren arabera da. Orain, neguan, oso gutxi lan egiten da. Eguraldi ona hasten denean, asteburuetan, Aste Santuan... egiten dugu lan. Asteaz zehar, esaterako, oso lan gutxi egiten dugu, langileren batzuk datoz noizean behin...

Gantzagara nondik etortzen da jendea bereziki?

Hemengo jendea gehienbat: Gasteiztik, Bizkaitik, Gipuzkoatik gutxiago (orain gehiago hasi dira)... Eta Aste Santuan edo udan, edozein lekutatik datoz; Australiatik ere etorri izan dira! Hegoafrikatik ere bai. Ingelesak,

holandarrak, katalanak...

A, bai? Eta zer pentsatzen zaie Aramaio?

Jendea asko gustatzen zaio. Oso leku polita dela diote. **Zela jakin dute nora etorri?** Holandako gida batean agertu ginen, Europako etxeren eskaintzaren barruan (logelak bakarrik eskaini beharrean etxe osoa eskaintzen dugulako, sukalde eta guzti). Horri esker, uztailan eta abuztuan kanpoko jende dezente etorri izan da.

Zeren bila etortzen dira?

Lekuaren eta lasaitasun bila etortzen dira. Aurtan, adibidez, Poloniatik bikote bat etorri zaigu eta oso gustura ibili gara. **Lehen euskaldun-berria zarela esan diguzu; zure bezeroak ikusita, ingeles-berria ere bazara?** Apur bat. Dena dela, uste dut hau ez dela hotel bat, baserria da; hortaz, hizkuntzak-eta... Normalean gaztelaniaz moldatzen gara. **Batzuek esan digute geroago eta gehiago igartzten dela bidaia merkeen eragina...**

Bai. Kontua da guk ezin dugula gehiago merkatu. Jendeak ulertu behar du gastu handiak ditugula eta jende gutxi etortzen dela. Nik, asko jota, sei pertsona har ditzaket; eta bi bakarrik etorri arren, berogailua-eta etxe osorako ipini behar dugu.

"Landetxeak etxera hobeto zaintzen laguntzen digu; diru aldetik ere laguntzen du"

ERRETRATUZAHARRA

Katekesiko
ikasle
mordoxka

San Andresen dago aterata iruñdiotako argazkia, geroago Ulgor lantegia eraiki zuten lekuan. Kontatu digutenez, katekesitik txangoa egin zuen neska talde horrek eta argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten eguna. Joan den mendeko 50eko hamarkadan ateratakoa da, erdialde inguruan.

Berriemaile mordoa izan ditugu lanean, argazkikoen izenak lortu nahian. Eta lortu ere mordoa lortu dituzte; gutxi batzuk besterik ez da geratu identifikatu barik.

Honako hauek azaltzen dira argazkian, zutik, ezkerretik eskumara: ezezaguna, Mari Carmen Arana, Nieves Garmendia, Pilar Zubillaga, Elena Legorburu, Esther Elizburu, Pilar Otxandiano, Purita Gorosabel (zalantzan), Jesusi Etxebarria, Milagros Elortza, Lourdes Egidazu, Begoña Pagaldai, Maria Asun Elgoibar, Angelita Elgoibar, Blanca Landa, Asun Azula, Nieves Zubizarreta (katekista), Felisa Solaegi eta Blanca Beitia.



Erdian, ezkerretik eskumara: Mertxe Iartza, Esther del Valle, Mari Vega, Lourdes Leibar, Mari Carmen Mendiartx, Kontxi Ezkurra, Mari Carmen Otadui, Kontxi Ugalde, Mari Tere Gomez, ezezaguna, Elena Galdos (zalantzan), ezezaguna, Pilar Aranegi, Glori Uriarte, Mari Luz Uranga,

ezezaguna, ezezaguna eta Mari Ana Langaran.

Eta beheko ilaran: Osane Iartza, Mari Angeles Zubiaga, Mertxe Juldain, Kontxi Juldain, Begoña Gartzia, ezezaguna, Mari Carmen Barrutia, Mari Carmen Zubia, ezezaguna, Pilar Altuna, Esther Aranburuzabala, Pilar

Leibar, Pilar Uribetxeberria eta Mari Tere Uribetxeberria.

Argazkia: Oñ Justino Uribesalgoren artxibotik.
Informazioa: Kontxi Ugalde, Angelita Elgoibar, Blanca Landa, Mari Carmen Mendiartx, Mari Tere Uribetxeberria, eta abar.
Urtea: 50eko hamarkada.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zaldibarko
etxe
zaharra

Zaldibarko pilotaleku parean zegoen Mendikute-tarren etxe zaharrea sutea izan zen 1993ko apirilaren 18an. Etxearen beheko solairuan hasi zen arren, suak berehala egin zuen gora. Hala ere, gaueko hamarretarako suhiltzaileek menderatuta zeukaten sua. Zorionez, etxe hura hutsik zegoen, eta laster ziren eraikina botatzekoak, etxe berriak egiteko.



≈ 1993 Antza denez, hutsik zegoen etxe hartan gazte koadrilak ibiltzen ziren jolasean, eta badi-rudi deskuidu batean suak ihes egin ziela.



2005 Urteak dira etxe zahar hura bota eta ondoan Romo-oko etxeak moduan ezagutzen ditugun eraikina egin zituztela.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com
1979 urtetik
zure zerbitzura
EGUZKIGRAF
inprimategia



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA

BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BITART

Larraitz Ugarte Maider Morras

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

Etxeko konponketak

Elektrizitatea



Aranzabal Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Eraikuntzak

**Arrasate
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel.: 943 79 67 78 Faxe.: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora